



IV Premio Internacional
COMPOSTELA
para álbumes ilustrados



kalandraka

**MARTÍN LEÓN-BARRETO IRUDIGILEAREN *EL CAMINO DE OLAJ* LANAK
IRABAZI DU ALBUM IRUDIDUNEN NAZIOARTEKO IV. COMPOSTELA SARIA**

Moisés Yagües finalista izan da *Al otro lado* lanarekin
eta Arianna Papini italiarrak aipamen berezia jaso du *¿Quién querías ser?* lanagatik



El Camino de Olaj izeneko lanak —Martín León-Barreto Johnson (Montevideo, 1973)— irabazi du Album Irudidunen Nazioarteko IV. Compostela Saria. Santiagoko Udaleko Hezkuntza Departamentuak eta Kalandrakak deitua. Moisés Yagües Fernández (Murtzia, 1972) finalista gelditu da *Al otro lado* izeneko lanarekin; eta Arianna Papinik (Florentzia, 1965) epaimahaiaren aipamen berezi bat jaso du *¿Quién querías ser?* lanarekin.



Album Irudidunen Nazioarteko IV. Compostela Sari honetara 19 herrialdeko 374 lan aurkeztu dira, gehienak Espainiakoak. Italiatik, Portugaldik, Argentinatik, Brasildik, Txiletik, Alemaniatik, Ameriketako Estatu Batuetatik eta Frantziatik bidalitako lanak ere izan dira. Eta, gutxiago bada ere, baita beste haueetatik bidaliak ere: Ekuador, El Salvador, Holanda, Hungaria, Peru, Errumania, Errusia, Serbia, Suitza eta Uruguai. Irabazleak 12.000 euro jasoko ditu egile-eskubideen aurrerapen moduan eta lanak gaztelaniaz, galegoz, katalanez, euskaraz eta portugesez argitaratuko dira aldi berean.

"Al otro lado" (Moisés Yagües); "¿Quién querías ser?" (Arianna Papini).

Martín León-Barreto Johnson disenatzaile grafikoa eta irudigilea da 1991z gerotik. Haur eta gazte literaturako liburu bildumen eta azalen diseinuan espezializatua dago. Guadalajaran (Espainian) bizi da eta hainbat argitaletxe eta hedabiderek inongo lan. Saritutako lanaren argumentua literaturaren ahozko tradizioari atxikia dago. Epaimahaikideek esan dutenez, "iniazio-bidaia da, objektuen eta animalien izendatetik abiatuta". Lan hau Martín León-Barretoren lehen liburua da egile eta ilustratzaile moduan. *El camino de Olaj* izeneko albumak etxe handi batean bizi den pertsonaia baten historia kontatzen du. Protagonistari etxea txiki gelditzen zaio bidean aurkitzen dituen lagunak bertara ekarri ahala.

Honakook osatu zuten epaimahaia: Santiagoko Udaleko Hezkuntzako zinegotzia, Mercedes Rosón andrea; Roberto Innocenti irudigile italiarra (Ilustrazioko Andersen Saria, 2008); Paula Carballeira idazle eta antzezlea; Federico Martín Nebras, idazlea eta haur eta gazte literaturan aditua; Xosé Manuel Rodríguez-Abella, Santiagoko Hezkuntza Departamentuko burua; Manuela Rodríguez, KALANDRAKAREN izenean, eta Beatriz Varela, idazkari teknikoaren lanetan. Denek azpimarratu dute parte-hartzaileek "kalitate handi handia" erakutsi dutela.

El camino de Olaj izeneko lanak bat eginen du Album Irudidunen Nazioarteko Compostela Saria jaso duten aurreko hiru irabazleekin: *Cerca (Hurbil)*, Natalia Colombo idazle argentinarrena; *Un gran sueño (Amets handi bat)*, Felipe Ugalde mexikarrena; eta *La Familia C (Z Familia)*, Pep Bruno eta Mariona Cabassa idazle eta irudigile katalanenak. Aurrekoekin bezala, KALANDRAKAK Martín León-Barretoren lana liburu azoka nagusietan aurkeztuko du: Bolognan (Italia), Frankfurten (Alemania) edo Guadalajaran (Mexiko).

Album Irudidunen Nazioarteko IV. Compostela Saria, Santiagoko Udalaren Irakurzaletasuna Sustatzeko XI. Kanpainaren parte da. Hezkuntza Departamentuaren eta Kalandrakaren eskutik, apirilaren 30a bitartean, zenbait ekitaldi izanen dira Santiagoko Sargadelos Galerian: liburuen eta jatorrizko irudien erakusketak, eskoletako ikasleentzako ipuin kontalarien eta musika emanaldiak, ilustrazio eta sormen literario tailerrak. Ekintza hauetan Compostela inguruko 5.000 lagunek parte hartzea espero da eta zenbait osagarri izanen dira: irakasleentzako prestakuntza jarduerak, ninientzako ipuin kontalariak, eta bisitak haur-eskoletara.



Paula Carballeira, Beatriz Varela, Federico Martín, Roberto Innocenti, Mercedes Rosón, Manuela Rodríguez, Xosé Manuel Rodríguez
comunicacion@kalandraka.com | www.kalandraka.com | www.kalandraka.com/blog